

{ asteari zeharka begira } **Ramon Sola**

52 borrokalari aske eta askoz arrazoi gehiago

Eztabaida antzu ugari trabatu du ezkertiar abertzaleen aurrerako bidea azkenaldi honetan, baina guztien artean bitxienetarikoa auzitegiaren lortzen hasi diren konponbide akordioaren ingurukoari deritzot. Agian ez dago oso zabaldua eta hurrengo lerroak soberan dira; hala bedi. Azken finean, argudio bakar batek aski izan beharko luke artikuluari bukaerako puntua jartzeko. Hauxe: Ibon Esteban, Ainhoa Villaverde, Haizpea Abrisketa, Jesus Agirre, Egoitz Apaolaza, Alazne Arozena, Karnele Berasategi, Nekane Erauskin, Antxon Gomez, Iñaki Olalde, Juan Carlos Ramos, Nuria Alzugarrai, Aitor Aranzabal, Karnele Aierbe, Iñigo Balda, Fernando Barrena, Gorka Diaz, Mikel Etxaburu, Maite Fernandez de la Bastida, Ino Galparsoro, Mikel Garaiondo, Asier Imaz, Eusebio Lasa, Aurore Martin, Patxi Urrutia, Joseba Zinkunegi, Marisa Alejandro, Angel Mari Elkano, Marije Fullaondo, Jon Garai, Gorka Muriello, Aner Petralanda, Juan Joxe Petrikorena, Peio Galvez, Joana Regueiro, Arantza San-
testeban, Mikel Zubimendi, Hasier Arraiz, Jon Patxi Arratibel, Iñigo Gonzalez, Gorka Mayo, Iker Moreno, Gorka Zabala, Eneko Compains, Joxe Aldasoro, Aniaiz Ariznabarreta, Rosa Iriarte, Egoitz Garmendia, Sandra Barrenetxea, Urko Aierbe, Ugaitz Elizaran eta Erika Bilbao.

Beste ezer baino lehenago, pertsonak daude 52 izen-abi-zenon atzean. Eta 52 familia, kuadrilla, lankide talde, auzokide multzo... Horien guztien espetxeratzeak maila humanoan izango zukeen eraginaz ez da gehiago esan beharrik. Bakea eta independentziaren alde ari diren guztien aurkako kolpe psikologikoaz ere ez; aski da aipatzea egunkari honen azaleko mantxetan beharantz hain poliki doan kontagailuak 385 markatu beharrean 437 adieraziko lukeela, iazko udaberriko datuetara itzuliz. Urtebeteko atzerapausoa, beraz, preso guztiak etxera ekartzeko borrokan. Baina dimentsio politikoa erantsi behar zaio horri, 52 pertsonok –zerrenda berriak daiteke– herritar arruntak izateaz gain, militante politikotrebaturik, gogotsu eta garrantzitsuak ere badirelako, bakoitzaren berean eta bere eskarmentuarekin. Errepresio politikoa ezkertiar abertzaleen eguneroko oia izan delako-edo, kartzelak mugimenduan duen eragina gutxietsi egiten dela ez dago ukatzerik. Baina ariketa sinplea da; nolako

kolpea hartuko zuen EAJk aste gutxi batzuetan aipatutakoen pareko 52 eledun, ordezkari, hautetsi, tokiko ardura-dun, aditu, militante arrunt... lanetik atera eta giltzapera pasatuko balira? Eta Ahal Duguk? Eta PSOEak? Eta UPNk?

Imajinatzen hasita, irudika genezake ere Estatuaren partetik akordioarako eskaintza hori jaso, eta, gaizki uler-tutako koherentziaren izenean-edo, ezetza ematen diote-la militante horiek –edo horietako batzuek–. Irekitako atea ostikada batez ixtea izango zatekeen, atzean kon-ponbide bera jorra dezaketene dozenaka lagunak biderik gabe utziz eta mugimendu osoaren kalterako. Aldiz, zirrrikitu horretan oina jarri eta atea gehiago irekitzeko bultza eginez, hainbeste aipatu dugun justizia trantsizio-nalaren abiapuntua izan liteke oraingoa. Ez litzateke oharkabea pasa beharko lege aldaketa baten ondorio di-rela akordiook («larritasun gutxiko delituei» dagokiena, alegia). Nahi den muga eta errezelo guztiekin, baina Ma-

Akordio politikoen bidea egoki jorratuz gero, hainbeste aldarrikatu dugun eta munduko beste prozesuetan hainbeste txalotu dugun justizia trantsizionalaren hazia hor egon daiteke

drilen Estatuko aparatuek hartutako hautua, eta Madri-len oraingoan batere eskandalurik eragin ez duena. Horri izkin eginez gero, badakigu zer zetorkien hurrengoei ere: Auzitegi Nazionalaren loteria-bonbotik zein bolatxo (ab-soluzioa ala kartzela) aterako zen zain segitzea.

«Eta duintasuna zer?», esango du honezkero batek bai-no gehiagok, aspaldi kontzeptu sana baino egun barru-ko liskarrerako gerra-tresna bilakatu den hitza ahoan. Karga moral erabatekoa duenez, norberak bakarrik jar diezaiok marra gorria bere duintasunari. Baina argi da-go mugimendu bezala, independentzia eta sozialismoa helburu dituen giza multzo gisa, duintasun osoz eta gai-nera indartsuago jarrai dezakeela borrokan ezker aber-tzaleak akordioan otean. Eta ez dakit zehazki zergatik li-tzatekeen duinagoa inork zigor politikoa bidegabe bat bere borrokaren kaltetan irentsi beharra... •